



ELKARRIZKETA: PEDRO GURIDI, EUSKAL PRESOA

Arrasate

2000.eko
azaroaren 3a
515. zenb.

P R E S S



Elkartasunerako erosketak

IKUSPEGIA: IKER EZPELETA • EUREN IKUSPUNTUTIK: JABIER GORROÑOGOITIA
KIROLA: ERRUGBI TALDEA • KULTURA: PSICOSIS GONSALES

ITURRIOTZ

ARRASATE

Etxebizitza-multzoa

*Azken
etxebizitzak eta
lokalak!!*



Eragilea:

**ZERRAJERA
ETXEBIZITZAK, S.L**

Informazioa eta salmenta:

Iturriotz kalea, 35
ARRASATE

Tel.: 943 77 19 67 • 943 77 19 68

Badatorrela?

Madrildik datoz oraingoan ere berri txarrak. Eta ez nabil Garzon-Mayor Oreja bikoteak egiten dituen aldrebeskeriez; kasu honetan Joxemi Zumalabe fundazioaren aurkako inguruan natorkizue. Gai horren inguruan luze hitz egin eta idatzi beharko zen, baina oraingoz zapatuan izan zen kale agerraldi ikaragarria joatearekin pozten naiz.



Iker Ezpeleta

Ez, ez nuen espero Lastertasun Handiko Trenaren gaia berriro jorratzerik, denboralditxo batean bederen, baina arestian aipatutako Madrilgo berriek horretara bultzatu naute.

Bai, batek baino gehiagok asmatuko zuen bezala, Espainiako Ingurumen Ministerioak "Euskal Y"ren inguruan iragarri duen ingurumenaren gaineko eraginaren aitorpenaz (IEA) ari naiz.

Esan gabe doa IEA ez dela, inondik inora, gatazka honen amaiera. AHTren aurka aritzeko birritan azaldu ditudan ekologia nahiz gizarte arloko arrazoietako bat berari ere ez baitie erantzuten. Argi dago IEA tramite hutsa besterik ez dela, egitasmoa "berdez" margotzeko. Ematen du IEA egitasmoaren aurkako irten ezker, ezin dela berau burutu, baina arrazoi

txiki bat baneukan aldekoa irtengo zela pentsatzeko: IEAk ez du inoiz egitasmo bat atzera bota. Ingurumen Ministerioak ingurumearen aurkako eraso bortitza bati

lotsagabeko garrantzia kendu nahi dio eta hainbat giza taldek alegazioetan AHTren egitasmoa zalantzan jarri, azalduko argudio eta kritika guztiak erantzun gabe utzi ditu. Azken batean, Ingurumen Ministerioak bere agiria gobernuaren desioen neurritan moldatu

du. AHTk, hala, ekologia nola gizarte arloan eragingo lituzkeen kalteen ikuspegi faltsua ematen baitu, egitasmoaren onarpena ez oztopatzearen.

Honen ondoren, Amann (EAEko ingurumen ministroak) azaldu zaigu 2001erako lanekin hasteko asmoa duela. Burokrazia aldetik, eraikitze proiektua egin eta gero, eskumenak baditu hasteko, koska "txiki" bat gaintitzen badu: datorren urterako 500 milioi pezeta besterik ez dauzka, hau da, planoak egiteko ere ez! Gauzak horrela, AHT ez da abian dagoen egitasmo bat, ezta gutxiagorik ere! Hori bai, nola-hala hastea dute helburu. Eta behin hasiz gero, denok dakigu atzera bueltarik ez dagoela (begira zer gertatu den Itoitzekin edo autobidearekin).

AHTren egitasmoak gure herriko arazorik korapilotsuenetakoa izaten jarraitzen du eta proiektuaren presazko egoerak egungo gizarte eredu garatzailea eta txikitzailea eraldatu nahi dugun gizataldeek erabakitasunez aurre egitea eskatzen du.

Dei egiten dut, beraz, gure iritziz, iruzur handi bat baino ez dena salatzen. ■

Ingurumen Ministerioak gobernuaren desioak moldatzen ditu

"Ez dugu sinisten bat-bateko iretenbideetan, badakigulako Euskal Herriak bizi duen egoera aldatzea ez dela erraza"

Pedro Guridi

455.000

pezetan saldu ditu Arrasateko Udalak galtzada-harriak

100 metro koadro lur estaltzeko haina harri jarri zuen salgai: 10 edukiontzi gutirtira.

Bost eskaera jaso ditu udalak galtzada-harriak erosteko.

AURKIBIDEA

- Ikuspigia 3
- Badatorrela?
- Irakurlea idazle 4
- Inkesta 5
- Euren ikuspuntutik 6
- Endesa-Iberdrola
- Begi kolpez 7
- Asteko hitzorduak 8
- Astearen errepasoa . . . 10
- Orain eta hemen . . . 11/12
- Txutxumutxuak . . . 14/15
- Asteko gaia 16/17
- Solidarioa eta bidezkoa den merkatua
- Aurrez aurre 18/19
- Pedro Guridi
- Kirolak jokoan 20/22
- Kulturaren txokoa 23/24
- Ikusi eta entzun . . . 26/27
- Azoka plaza 28/29
- Foto zaharra 30

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñate kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Marijo Deogracias. Kazetariak: Ubane Madera, Leire Kortabarría eta Alazne Ostolaza. Publizitateak: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroia. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). Zuzentzailea: Sergio Azkaraite. Administrazioa: Agurtzane Gainzarain, Ane Beremizbar (Tel.: 943 71 23 90) Diseinua: Maddi Trubuelo.

Asteburuetako berriemakilerak: Lorea Aguirre, Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Salla. Banaketa arduraduna: Naiara Odirozola-AED. (Tel.: 943 71 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.500. Lege-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimatzea: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Arrasate
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 3**
• Morales, San Andres
- Larunbata, 4**
• Azkoaga, Ferrerías
- Igandea, 5**
• Azkoaga, Iturriotz
- Astelehena, 6**
• Korkuera, Musakola
- Astearte, 7**
• Irizar, Erguin
- Asteazkena, 8**
• Amezua, Santa Marina
- Osteguna, 9**
• Zabala, Zarugalde

Hainbat komunikabidek bultzaturik, terrorismo delituentzako bihurtzeko kartzela zigorra ezartzearen inguruko eztabaida piztu da espaniar gizartearen, ez hainbeste, ordea, euskal gizartearen.

Amnistiaren Aldeko Mugimendutik biktimganako errespeturik handiena izanik, hauek berau proposatzea uler dezakegu. Baina, gure ustez proposamen hau ez dute biktimgak bultzatu; izan ere, Gobernu Espainolak jarraitutako bide errepresiboren porrotarenganako atentzioa desbideratu nahi dutenek egindako proposamena dela uste dugu.

Bertan azaltzen zaizkigun argudioei, honakoak erantzun nahi diegu:

- Gogorarazi beharra dugu, Euskal Herriaren historia 4.000tik gorako legez kanpoko exekuzioak burutu direla, azkena, ETAko militanteara, Jose Luis Geres-tarena.

1.000tik gora izan direla militante politikoaren exekuzio sumarialak, hauen artean Txiki eta Otaegirenak. Espaniar legedia asko aldatu dela azken urteotan zigorrak gogortuz, honen ondorio zuzena Euskal Herriaren askatasunerako militante berriak borroka armatuan etengabe sartzeari izanik.

- Era berean, biktima eta borroaren arteko topagunea sortzea oso zinikoa da. Aspal-di bizi gara zigorrak jaso ez duten euskal herritar asko erail dituzten hiltzaileekin, gaur egun eta paradogikoki, ardurara politikoak dituztenak hain zuzen ere (GAL, ENDESA ekonomika...).

- 30 eta 40 urteko zigorrak argi eta garbi adierazten dute gatazka konpontzeko gogo eza, euskal eta ziurrenik espainiar gizarteak hau konpontzeko eskatzen duenean.

Kartzelak ez ditu gure arazoak konpontzen, gauzak konpontzeko dugun ezintasuna islatu besterik ez du egiten.

Pedrotxok jasan behar izan dituen 20 kartzela urteek Euskal Herriaren sufrimenduaren azkenak behar dute izan. Eztabaida faltsuak ez dira ezertara iristen. Gutako bakoitzaren lana da gatazka hau konponduko duena, eta beharrezkoak ez diren sufrimenduak ekidingo ditu.

Arrasateko Amnistiaren Aldeko Batzordea

Eta nik zer egin dezaket?

Ehunka milioi gizaki behar gorrian bizi da. Eta jakin badakigu batzuen pobrezia eta besteon aberastasuna lotuta daudela, ez direla halabeharrendaren ondorio.

Aberatsak geroz eta aberatsago eta pobreak geroz eta pobreak egiten dituen antolamendu honetan nazioarteko merkataritzak lehen mailako ardura du.

Gauza hauek denak ezagunak dira eta jende askori samina eta ezintasun sentimendua sortzen dizkiote. "Eta nik zer egin dezaket?" izan ohi da erantzun-kexu ohikoena.

Bidezko Merkataritza egoera honi aurre egiteko herritarrek sorturiko mugimendu bat da. Bere egitekoen barne daude, adibidez, Hirugarren Munduko nekazari eta artisau txikiek ekoizturiko produktuak gure artera ekartzea. Bere helburua merkataritzan ere gutxieneko arau batzuk bete daitezkeen lortzea da. Baina, hori lortzeko pertsonak behar dira: pertsonak Bidezko Merkataritzako dendak zaintzeko, gizakien gutxieneko eskubideak errespetatzen ez dituzten enpresak salatzen eta abar.

Hona hemen alferrikako ezintasun sentimenduetan ezkutatu nahi ez duenarentzako aukera: Arrasateko Eroskin dagoen Bidezko Merkataritzako dendara jo besterik ez du; ongi etorria izango da eta seguru elkarrekin hainbat gauza egin ahal izango ditugula.

Harreman, Bidezko Merkataritza Denda.
686878868 (Amaia)

Gidalari berria

Miriam Garciak 26 urte ditu eta bera dabil ARKOk egin ohi duen Gidan lanean, Idoia Pozorekin batera. Arrasateko telefono interesgarri guztiak biltzen ibiliko da hila-bete honetan zehar. Izan ere, *Gida 2001*. urtarrilean banatuko du ARKOk.

Beraz, badakizue, bera-ekin harremanetan jarri nahi izanez gero, 943 71 23 91 telefonora dei dezakezue.



Ezagutzen duzu Bidezko Merkataritza?

Debagoieneko GKEk bidezko merkataritzako denda dute Eroskiko merkatal zentroan



Amador Rubio
(60 urte)
Erretiratua

Ez dut ezagutzen. Ez nekien Eroskin denda bat zutenik ere. Ez naiz sekula egon.



Txomin Rojel
(35 urte)
Soldatzailea

Ez dut Eroski bera ezagutzen eta, bidezko merkataritzako denda nola ezagutuko dut, bada?



Janire Ereño
(25 urte)
Langilea

Erosi izan ditut gauzak, batez ere gabonetan: postalak, mahai-zapiak, opariak... Gainera, prezio oso onak dituzte; laguntzeko modua da.



Isabel Laskurain
(57 urte)
Etxekoandrea

Bai, ezagutzen dut; Hirugarren Munduko herrialdeen produktuak izaten dituzte. Dena dela, ez naiz inoiz egon.



Olaia Arexolaleiba
(22 urte)
Langabea

Bai, ezagutzen dut, baina oso gutxitan egon naiz dendan.



Joseba Moñuz
(34 urte)
Suhiltzailea

Ezagutzen dut pixka bat. Dena dela, sekula ez dut erosketarik egin bertan.



Ana Maria Martinez
(41 urte)
Etxekoandrea

Ez askorik. Badakit Eroskin denda bat dutela, baina ez naiz sekula sartu.



Ritxar de Castro
(23 urte)
Langilea

Bai, erosi ere egin dut zerbait, eta prezioz ere ondo daude: produktuak ez daude ez merke, ezta garesti ere.

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

BASATI
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711768

Amaia
frutadenda

esku aldatzen da

943 77 01 79

USTEAK USTE

Gaztelanizatuta gaude

Hilerrria urrin dago... autobusa- rekin pauso batean”.

Herri autobusean egunotan ikusi dugun iragarkiak horrela dio. Autobusean igoz gero, berehala hilerrria iritsiko garela, edo hilerrria joateko autobusa dagoela eta berehala iristen dela? Bata zein bestea ulertu daiteke hori irakurrita. Noski, jakin badakigu lehenengoa adierazi nahi duela pentsatzea, “letxe-txarra” izatea dela. Baina, bigarren irakurketa bat egitea askotan ona izaten da. Kasu honetan, noski, sarkasmo handia beharko genuke bigarren irakurketa hori egiteko, ez duzue uste?

Kontuak kontu, herri autobusak zerbitzua eskaini du bi egunetan eta bati baino gehiagori mesede egingo dio, hilerrria non dagoen kontuan hartuz gero.

Baina, aurrekora itzuliz, euskaraz idazteko gaztelaniaz pentsatuz gero, horrelako esaldiak ateratzen zaizkigu. Guri ere, lanean, askotan gertatzen zaigu horrelakorik. Gehiegi erabiltzen dugu gaztelania; “gaztelanizatuta” gaude eta bada ordua geuriari eutsi eta horrela aritzeko.

Marijo Deogracias



Endesa-Iberdrola

* Jabier Gorroñoigoitia

Endesa eta Iberdrolaren elkarketaren albisteak, jeneralean ekonomiari buruzko informazio-orrialde “aspergarrietan” azaldu beharko lukeen albiste horrek, ia leku gehiago hartu zuen gure egunkari eta irratietako kronika politikoan, ekonomia saileko albisteen artean baino.

Jaurlaritzaren eta alderdi politiko nazionalisten bozeramaileen iritiz, Iberdrolaren egoitza nagusia Madrilera eramatea Gobernu Zentralak Euskal Herriaren ekonomia nolabait ahultzeko ekimena izan da.

Era horretako elkarketak egiten direnean, sozietate nagusia erreferentzia gisa hartzen da elkarketa gertatzen den une beretik; ez da harriztekoa, beraz, sozietate berriaren egoitza Endesarena izatea.

Hala ere, ekimen horren izaera edo zernolakoa harrigarri samarra iruditzen zaigu. Hain zuzen ere, bi konpainietako lehendakariak adierazi zuten, elkarketa horren helburu bakarra ekonomikoa zen. Nolanahi

ere, balore-sozietate eta inbertsio-bankuetako analista gehienek ez dute oso ontzat hartu elkarketa hori; adierazi dutenez, bat-egiteak abantaila gutxi ekarriko dizkio Endesari eta abantaila horien inguruan ere zalantza asko dago.

Nolako ondorioa izan dezake horrek Euskal Herrian?

Lanpostu batzuk “lekuz aldatu” behar izateaz gain, zerbitzu nagusiak Endesaren egoitzara aldatzea da ondorio nabarienteko bat. Hala ere, bada beste ondorio bat ez hain nabaria eta antzematen zailago dena; hain zuzen ere, erabakiak hartzeko lekua zenbat eta urrunago egon,

“**Erabakiak hartzeko lekua zenbat eta urrunago egon, orduan eta aukera gutxiago inbertsioetan eragiteko**”

orduan eta aukera gutxiago izango dituzte erakunde publikoek konpainiaren inbertsio-proiektu jakin batzuetan eragina izateko.

Repsolek beste kontraes-kaintza bat egin dezan eskatu du alderdi politikoren batek. Ziur asko akziodun txikiek eskertu egingo dute hori, eskaintza hobetzeko modua izan baitaiteke; hala ere, alternatiba horrek ez du, noski, ziurtatuko sozietatearen egoitza Euskal Herrian geratzea.

Globalizazioaren mende dagoen ekonomia batean kapitalek inolako murrizpenik gabe mugitzeko aukera dutenez, eta enpresa mailako arrazoi hutsak kontuan izanik, kanpoko kapitalak gure enpresen kontrolaz jabetzeko arriskua izango dugu beti. Zorionez, Euska Herriko ekonomia ez dago soil-soilik enpresa handi “OPAgarri” en mende; milaka sozietate txiki eta bestelako enpresa ugari ditugu, eta horien nortasun juridikoari esker, gure kooperatibak tartean direla, “gu erosteko” arriskua askoz txikiagoa da.

Nolanahi ere, Endesa eta Iberdrolaren arteko aferak soka luzea ekarriko du oraindik. Gainera, bi konpainietako akziodunen batzordeak, Europako Batzordeak, Repsolek, BBK-k, BBV-k eta abarrek beren jarrera azaldu behar dute oraindik.

Negu luzea dugu aurretik.

*Euskadiko Kutxako Diruzaintza eta Kapitalen Merkaturko zuzendaria

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6 (Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Binloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebuden hizkiak

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarako hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua



OSTIRALA 3

Lainoek zerua estaliko dute orduak aurrera joan ahala. Tarteka euri arriskua areagotuko da.



LARUNBATA 4

Lainoak izango dira nagusi eta hotza egingo du; goi mendietan elur arriskua egongo da.



IGANDEA 5

Laino ugari egongo dira eta tenperaturak igo egingo dira haizeak norabidez aldatuko du eta.

jaiotzak

- Maria Lopez Amoros, urriaren 24ean.
- Shania Hegreira Lopez, urriaren 25ean.

hildakoak

- Araceli Medina Lopez, urriaren 13an, 52 urte zituela.
- Jose Ramon Urdanpilleta, urriaren 21ean, 80 urte zituela.
- Leandra Iriondo Larrarte, urriaren 21ean, 80 urte zituela.
- Felix Zubia Amuchategi, urriaren 22an, 79 urte zituela.
- M^a Teresa Saenz Rosaenz, urriaren 26an, 75 urte zituela.
- Fco. Javier Urrutia Ugalde, urriaren 26an, 82 urte zituela.
- Manuel Regaño Rubio, urriaren 28an, 43 urte zituela.
- Alberto Perez Romero, urriaren 29an, 72 urte zituela.
- Serapio Martinez S. Vicente, urriaren 30ean, 91 urte zituela.
- Celestino Mugica Olasagasti, urriaren 30ean, 83 urte zituela.
- M^a Luisa Fernandez Portillo, urriaren 31an, 66 urte zituela.

mezak

San Joan parrokia

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

09:00 (gaztelaniaz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

09:00 (euskaraz)

10:00 (gaztelaniaz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (gaztelaniaz)

19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

11:30 (euskaraz)

12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

10:00 (elebiduna)

11:00 (euskaraz)

12:00 (gaztelaniaz)

13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

10:30 (gaztelaniaz)

11:30 San Isidron (euskaraz)

12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jaiegun bezpera eta larunbata

19:00 (gaztelaniaz)

Igandea

12:00 (gaztelaniaz)

eskelak



ESKER ONA

2000.eko urriaren 26an hil zen

Javier Urrutia Ugalde

Bere familiaren partetik, eskerrik beroenak momentu hauek pasatzen lagundu diguzuen guztioi.



LEHENENGO URTEURRENA

**Jose Ramon
Sarasola Sarasola**

Urteurreneko meza, San Andres elizan azaroaren 5ean, igandea, goizeko 11:00etan ospatuko da.



Aurrez esker ona bertaratzen zareten guztioi. Bere familia.



MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Tel.: 943 79 22 70

3 ostirala

■ ZINEMA

Space Cowboys: 19:30 - 22:00. 7 urtetik aurrera.

■ HAIKAREN ASANBLEA

Gaztediaren egoeraz berba egiteko bilera egingo du Haikak, gaztetxean, 17:30ean.

■ FESTA MEXIKARRA

Festa mexikarra izango da Garagartzako Belun tabernan. Tartean *Arantza eta Pantxoren* kontzertua izango da 23:30ean.

Izateak, feminismo eta sexologiari begiratutako jardunaldiak izango dira Humanitate Fakultatean, 10:00etan.

■ AEROBITOIA

Ertamerikaren aldeko *Arrasateko II. Aerobitoia* izango da Iturripen, 17:30etik 19:30era.

■ PEDROTXORI OMENALDIA

Amnistiaren Aldeko Batzordeak kale agerraldia deitu du, 19:00etan herriko plazan. 19:30ean Amaia antzokian egingo zaio omenaldia Pedro Guridi euskal presoari.

■ HIM JAMEN

HIM taldearen kontzertua izango da Jamen. 21:30ean.

4 larunbata

■ ZINEMA

La Pelicula de Tigger: 17:00. *El bar Coyote*: 19:30 - 22:00. 13 urtetik aurrera.

■ LUDOTEKA

San Andres ikastetxean izango da Txatxilipurdiren Ludoteka. 11:00etatik 13:00era.

■ JARDUNALDIAK

Emakumeak: Izanak eta

5 igandea

■ ZINEMA

La Pelicula de Tigger: 17:00. *El bar Coyote*: 19:30 - 22:00. 13 urtetik aurrera.

■ PSICOSIS GONSALES

Con cierto desconcierto antzerki-kabareta eskainiko du Psicosis Gonsalesek. Sarre-rak 1.000 pezetan; Gazte Txartelarekin, berriz, 800. Amaia antzokian, 19:30.

6 astelehena

■ ZINEMA

El bar Coyote: 19:00 - 21:30. 13 urtetik aurrera.

7 asteartea

■ ZINEMA

El bar Coyote: 19:00 - 21:30. 13 urtetik aurrera.

■ ETXEKO LANGILEEN ESKUBIDEAK

Hitzaldia izango da. Mon-terronen, 19:00etan.

8 asteazkena

■ AZAROKO ZINEMA

Calparsorok zuzendutako *Asfalto* filma eskainiko da. Amaia antzokian, 21:30ean.

■ PILOTA PARTIDETARAKO SARRERAK

21:30ean irekiko da Uarkapeko salmenta lekua, 22:30ean hasiko diren partidetak txartelak erosteko. 3.000 pezetan.

■ AEK-EGUNERAKO AUTOBUSA

Azaroaren 5ean AEK-Eguna ospatuko da Lizarran. Autobusa antolatu du Erdu-AEK-k, eta 10:15ean irtengo da Garibaitik. Txartelak 1.000 pezetan daude salgai, Erdu-AEKn eta Iratin.

■ BIZKAIRA TXANGOIA

Bizkaira txangoia antolatu du Ekin Emakumeak elkarteak. Azaroaren 18an izango da. Butroiko gaztelua eta Bilboko Guggenheim museoa bisitatuko dituzte, besteak beste. Izena emateko edo argibide gehiagorako, deitu 943 77 12 28ra edo pasa zaitez Pablo Uranga-6tik.

■ EMAKUMEA ETA LITERATURA TAILERRA

Azaroaren 10a arte izango da Emakumea eta Literatura tailerrerako izena emateko epea, Monterronen. Itziar Zubizarretak zuzenduko du. Hilero, liburu baten kritika egingo da, modu arin eta ulergarrian, eta ondoren, elkarrizketa. Hurrengo saioa azaroaren 27an egingo da.

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

GANBARA

- Enmarkazioak
- Estiloko markoak
- Laminak
- Arte lanak (margo lanak)

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37

Arte ederretako materialean %25-30eko deskontua

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

Argi eta garbi

Etxeko Langilea:

Defenda itzazu zure Eskubideak!

ATH-ELE Etxeko Langileen Elkartea • Arrasateko Udaleko Emakume Saila

HITZALDIA

"Etxeko langileen eskubideak"

- **Hizlaria:** Isabel Quintana.
Etxeko Langileen Bizkaiko Elkarteko prokuradorea.
- **Tokia:** Monterroneko hitzaldi aretoa.
- **Noiz:** Azaroaren 7an, asteartea, arratsaldeko 19:00etan.

Etxeko langile bazara...

*Zuen etxeko lanak egiteko
pertsona kontratatze kotan bazabiltza...*

Interesatuko zaizu.

URTEKO GUTXIENEO

SOLDATA 40 ORDU: 989.520 pta.
(12 hilabeteko soldata
eta 2 estra 70.680 pezetakoak)

GIZARTE SEGURANTZAREN

KOTIZAZIOA: 18.975 pta.
• Kontratatzailearen kontura 15.784 pta.
• Langilearen kontura 3.191 pta.

Kotizaziorako oinarria: 86.250 pta.

- Hemen adierazitako soldatak legeak agintzen dituen gutxieneoak dira, kontratatzailearen aldetik hobetu daitezke.
- Eskatu nomina, kontratua exijitu.
- Gizarte Segurantzaren altan ez egon arren, zure eskubideak defenda itzazu.
- Paga estrak 30 egunekoak dira.
- Oporretako hilabetea ordaindua izan beharko da.
- Astean 20 ordu edo gehiago lan eginez gero, Gizarte Segurantzaren alta eman beharra daukate.
- Alarguntza pentsioa jasotzen baduzu ere, Gizarte Segurantzaren kotizatu baduzu zure erretiro pentsioa kobratzeko eskubidea izango duzu.

Informazio gehiago, Arrasateko Udaleko Emakume Sailean:
deitu 943 79 09 00 edo eta 943 79 41 39 telefonoetara.
Gerturatu Arrasateko Udaletxera, herriko plazara.
Helbide elektronikoa: emakume@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA Emakume Saila ■

ATH-ELE

astea bi hitzetan

■ Bonba-mehatxua

Atentatu saiakeraren ondoren, JOMA lantegiak beste susto bat izan du asteburuan. Pasa den domekan ezezagun batek Gurutze Gorriara deitu zuen, eta hogeitu minutuan lehergailu batek JOMAN eztanda egingo zuela esan zuen. Ertzaintzak JOMA inguruetako zirkulazioa desbideratu eta bazterrak ondo miatu zituen. Zorionez, ez zuten ezer aurkitu.

■ Langraitzera autobusez

Autobus bat bete irten zen larunbatean Garibaiko geltokitik Langraitzera. Ikurri-

na pilo, presoan aldeko banderak eta asmo bat: Pedro Guridiri elkartasuna adieraztea.

Beste batzuek automobileraz egin zuten Langraitzera bidea.

Hogeitu urte dira Pedro Guridi kartzeleratu zutela eta orain bost urte bete zituen 3/4ak, baina oraindik preso jarraitzen du. Hogeitu urte hauetan estatu espainoleko espetxe askotan izan da, sakabanaketaren ondorioz.

Horren harira, astelehenean EHko zinegotziek bilkura egin zuten udaletxe

aurrean.

Zigorraren hiru laurdanak beteta dituzten presoak askatzeko eskatu zuten, "3/4ak beteta dituztenak kalera. Pedrotxo 20 urte kartzelan" esaten zuen pankarta batekin.

■ Euskadiko Kutxa

Euskadiko Kutxak jakinarazi duenez, aurtengo lehen bederatz hilabeteetan ia baino irabazi handiagoak izan ditu Euskadiko Kutxak. Hain zuzen ere, 16.800 milioi pezetako irabaziaz izan ditu, ia %5 gehiago.



■ Bilkurak

Madrilen bonba-autoak eragindako hilketak gaitzesteko kale bilkurak izan ziren martitzenean Mondragoen. Betiko moduan, bata eguerdian egin zen, lehendakariaren deialdiarekin bat eginez. Bestea, berriz, arratsaldean, Bakearen Aldeko Koordinakundeak deituta.

“ Legez kanpo, edo legetik at, gertatu da hortaz, telebista lokalen garapena eta horretan pisu handia hartu dute proiektu komertzialek, euskararen kaltetan gehienetan: egun Euskal Herrian emititzen duten 20 telebista ingurutik lau zapa-bostek baino ez dute erabiltzen euskara normaltasunez. Esperientzia aberatsak ere eman dira, hala eta guztiz ere, euskal komunikazioarentzat, Goiena Telebista edo Ttipi-Ttaparena bezalakoak, besteak beste.

PATXI AZPILLAGA

Argia
(2000.10.29)



2001.eko
udazken
neguko
denboraldia

Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12



Lan eskaintza

Publizitate teknikaria

BALDINTZAK:

- Euskara ondo menperatzea.
- Harremanetarako erraztasuna izatea.
- Gidatzeko agiriaren jabe izatea.

BALORATUKO DA:

- Publizitate, Marketing edo Enpresa Zientzietan ikasketak izatea.
- Herri Komuniabideak ezagutzea.
- Merkataritza agente bezala esperientzia izatea.
- Arrasate eta inguruak ezagutzea.
- Testu prozesatzaileak eta datu baseak erabiltzea.
- Autoa edukitzea.

Curriculumak azaroren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira, ARKOn egoitzan Otarola Lizenziatua, 31 ARRASATE • Tel.: 943 71 23 90

Gobernu Batzordearen erantzun bateratua

Udaleko Gobernu Batzordeak (EH, EA eta EB) hiru egun eman zituen JOMAREN aurka egindako atentau saiakera salatzeko erantzun bateratu bat adostu eta udalbatzarrari aurkezteko.

Joseba Ugaldek osoko bilkuran esan bezala, "inoiz ez da horrelakorik ikusi Mondragoen"; berebiziko garrantzia duen aurrerapausoa izan dela gaineratu zuen eta leku gehiagoetan egingo balitz onuragarria litzatekeela".

EAK hiru alderdiek hartutako konpromisoa eta egindako ahalegina nabarmendu zituen, besteak beste.

Gainerako alderdi politikoek ez zuten ondo hartu aurkeztutakoa. PSE-EE alderdiaren ustez, ez da gaitzespen hitza azaltzen, eta horren ondorioz, "atentatua justifikatu egiten da eraikuntza nazionalaren mesedetan". Jakina, mozio horren kontra bozkatu zuen.



EA, EB eta EH alderdiek adostutako mozioa onartu zuen udal gobernuak.

EAJK ere aurkako botoa eman zion. Alderdi nazionalistaren esanetan, atentatu saiakera moduan aztertzen da gertatutakoa eta "hura atentatua izan zen". Hala ere, udal gobernuaren osatzen duten hiru alderdiek egindako aurrerapausu bat dela aitortu zuen, baina bere alderdiko kideekin mozio hori eztabaidatzeko astirik ez zutela izan-eta, aurka bozkatu zuen.

Azkenik, Alderdi Popularrak ere kontrako botoa eman zuen. Antonio Palacios zinegotziak gobernuko hiru alderdiek egindako esfortzua aitortu zuen, baina ez zela nahikoa ere adierazi zuen.

MOZIOA

EA, EB eta EH alderdiek adostutako mozioaren bigarren puntuak eragin zituen eztabaidak. Zera zioen puntu horretan:

"Euskal Herriaren eraikuntza nazionalaren ikuspegitik, herri baten subirautearen oinarrian dauden osagarri guztiak indartu beharra dago, hauen artean berebiziko garrantzia izanik, esparru ekonomikoan, gure enpresen jectio gaitasuna. Gure ustez, eskuartearen darabilgun gertakizuna, negatiboa gertatzen da, Arrasateko garapen enpresarialarentzat eta beraz erabat errefusatu dena".

GAINERAKOAK

Mozio horrez gain, beste lau ere bozkatu ziren. Bata, Emakumearen Mundu Martxari atxikimendua adierazteko proposamena izan zen. Beste hiruak, EAJK aurkeztutakoak izan ziren: JOMARI egindako atentatua, Martixu Kajoi gauean izandako istilua eta L. Portero, A. Muñoz eta M. Casadoren heriotzak gaitzesteko eskara egiten zuen mozioetan.

Zergak %2,8 egin dute gora, KPI baino gutxiago

Arrasatearrok udalari ordaindu beharreko zergak %2,8 igo dira 2001. urtean, Kontsumo Prezioen Indizea baino gutxiago, eta, beraz, inguruko herrietan baino gutxiago.

Igoera horretan badago salbuespenik: Iturbide Egoitzako zergak %10 igo dira.

Horren parean, badaude ia zergak; hala nola Ondasun Higiezinaren gaineoak, Udal Euskaltegiko eta Laubide parkineko orduko zergak eta Musakola eta Iturripe kiroldegietakoak. Kiroldegietako sauna, medikuntza zerbitzua eta ikuskizunetarako alokairuak igo egingo dira.

Horrez gain, Uarkape pilotalekuko tasak ere ezarri dira.



Automobilaren sailkapena aldatu egin da datorren urteko zergetan.

Aurtengo zergetan dagoen aldaketarik nabarmenena automobilekin lotutakoa da. Sailkapena egiteko modua aldatu egin da eta horren ondorioz ordaindu beharreko kopuruak ere desberdinak dira. Datorren urtetik aurre-

ra, automobilak sei multzotan sailkatuko dira: 9 HP baino gutxiagokoak, 5.000 pezeta; 9-11'99 HPkoak, 10.000 pezeta; 12-13'99 HPkoak, 16.000 pezeta; 16-19'99koak, 25.000 pezeta eta 20 HPtik gorakoak, 30.000 pezeta.

Teknologia indartzeko

Arrasateko Kooperatiben Korporazioak 2001-2004 urte bitartean garatuko duen egitasmoa aurkeztu du Bilbon. Adierazitakoaren arabera, hiru urte horietan 64.000 milioi pezeta inbertituko ditu berrikuntza teknologikoa bultzatzeko. Diru horretatik atal bat Zientzia eta Teknologiarako joango da, beste bat azpiegitura eta zentro teknologikokoak egitera eta hirugarren bat Garaia Berrikuntza Gunea egitera.

Inbertsio horrekin, MCCk aitzindari izan nahi du teknologia berrietan eta horren aldeko apustua egingo du.

MU, etengabe handituz

Aurten 3.791 ikasle matrikulatu dira Mondragon Unibertsitatean, iaz baino %13'75 gehiago. Unibertsitateko ordezkarien esanetan, bi arrazoi daude hazkunde hori emateko: bata, ikasketa berriak eskaintzen direlako (Psikopedagogia, adibidez); bestea, Ingeniaritza Industrialak eta Ingeniaritza Informatikoak indartu egin direlako.

Mondragon Unibertsitateko errektorearen esanetan, hazkunde aztertzeko orduan kontuan hartu behar da "Mondragon Unibertsitatea txikia dela eta oraindik hazteko prozesuan dagoela; beraz, logikoa da Euskal Herriko beste unibertsitateen matrikula kopurua beherantz doan neurrian, Arrasateko gorantz joatea".

HUMANITATE FAKULTATEA

Humanitate eta Zientzien fakultateak igarri du ikasle igoerarik handiena: %7; Eskola Politeknikoa izan da ondorengoa, %3ko hazkundearekin. Bi ikasketa horien parean, berriz, enpresa zientzien ikasketak daude. Aurreko urteekin konparatuz, pertsona gutxiago matrikulatu da Oñatiko ETEOn.

Kontuak kontu, Mondragon Unibertsitateak 1.000 ikasle gehiago ditu gaur egun.



Unitate berria Aita Mennin

Aita Menni ospitaleak zerbitzu berria inauguratu zuen astelehenean: menpekotasun fisiko eta psikiko larriak dituzten nagusiak zaintzeko eta, ahal den neurrian, galtzen ari diren gaitasunei eusteko unitatea. Benito Menni da unitatearen izena eta 35 lagunendako zerbitzua emango du. Osasunaren alderdi guztiak zainduko dira: ongizate fisikoa, buruko arazoak, eta baita giza harremanak ere. Hori dela eta, denetarik profesionalak izango dira lanean: medikuak, erizainak, gizarte laguntzaileak eta psikologoak. Gaixo bakoitzak bere



Gizartekintzaren plan gerontologikoaren barruan dagoen egitasmoa da.

neurria egindako plangintza bat izango du eta plangintza hau gaurkotzeko gaixoen familiekin elkarrizketatuko dira egoitzako ordezkariak.

Aita Menni ospitaleak

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean ateratako egitasmoa da hau, Gizartekintzaren plan gerontologikoaren barruan, hain zuzen ere.

Zabaleta eraldatzekotan



Zabaleta ingurua egokitzeko proiektua onartu du udalak. Batetik, Deba ibaiaren ubidea zuzendu egingo da, urari leku gehiago eginez. Bestetik, erre-karen ondoan bidexka edo pasabide bat ere eraikiko da, oinezkoentzako. Pasabide hori orain dagoen metalezko zubiaren ordezkaria izango da; beraz, oinezkoak errepidearen azpitik pasatuko dira.

Hirugarrenik, inguruan dauden enpresetara sartzeko ere beste bide bat egingo da. Hain zuzen ere, gaur egun Eroskira sartzeko dagoena luzatu egingo da, erreka

zeharkatu arte. Bide hori erabilibili beharko dute Esmeta eta Epele lantegikoek eta inguruko baserriarrek.

Laugarrenik, Eroskiko biribiletik hurrengo biribile-ra arteko errepide zatia bota eta berria egingo da. Bitartean, zirkulazioa barruko bidetik bideratuko da, Eroskira joateko bidetik, alegia.

LKSk egin du proiektu hau. Hilabetez jendaurrean jarriko da, alegazioak jasotzeko. Ondoren, behin betiko proiektua zehaztuko da.

185 milioi pezetako aurrekontua dago lanok egiteko.

Kutsadura aztertzen

Kutsatutako lurzoruak aztertu eta berreskuratzeko egitasmo batean parte hartzea onartu du Gobernu Batzordeak. "Lurzolu poluituak berreskuratzeko EAEko udal komunitateentzat 2000/2002 programa", horixe da IHOBek proposatutako egitasmoaren izena. Helburuak, berriz, hiru dira: lurzoru kutsatuak ikertu eta berreskuratzea, horretarako finantzaketa-bideak bilatzea eta udal-teknikariak trebatzeko ekimenak abian jartzea. Helburu horien barruan, besteak beste, utzitako hondakindegietan jarduteko planak ere garatu beharko lirateke. Hori aprobetxatuz, Mondragoen Akei erraustegia eta haren inguruak aztertuko dira, Akei itxi arte lurzoru hark zuen jardueraren ondorioz kutsatuta dagoen edo ez jakitako. Hain zuzen ere, erraustegitik ateratako erraustak botatzen ziren gunek guztia aztertuko da.



PSICOSIS
Gonsales

ANTZERKI KABARETA

Concierto Desconcierto

Eguna: Azaroaren 5a

Lekua: Amaia Antzokia

Ordua: 19:30etan

Sarrera: 1.000 PTA

(Gazte txartela: 800 PTA)



ARRASATEKO UDALA Kultura Saila ■

DENOK TXAPELDUN TXATXIOLINPIADETAN



Uarkapen egin ziren, orain dela bi asteburu, Txatxilipurdik antolatutako Olinpiadak. Ez ziren akaso Sydneykoak bezain ikusgarriak eta lehiatuak izango, baina dibertigarriak behintzat, bai!



IPUINAK ETA MARRAZKIAK, BAT-BATEAN



Ixabel Agirresarobe eta "Mattin" izan ditugu egunotan Arrasaten, Irudipuinak saioarekin. Aho zabalik utzi gintuzteten euren trebezia eta irudimenarekin: hori bai ipuinak kontatu eta marrazkiak inprobisatzeko iaiotasuna!

UMEEN GOZAMENERAKO

Bete egin zuten umeek Amaia antzokia joan den egubakoitzean, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia ikusteko. *Euskaldunon Egunkariaren* 10. urteurrena zela eta antolatu zen ikuskizun hau.



TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35




Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

Eskaintza berezia solariumean

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

GAZTAINA ERREEN BERORA



Negua badator, eta hasi dira agertzen horren lehenengo aztar-nak. Ezetz? Bada, gztaina erre saltzaileak ipini du dagoeneko bere postua herriko plazan. Herriko plazan, bai, eta ez Arbolapetan, iazko legez.

ZORIONAK KOADRILLAKO LAGUNEN PARTETIK

*Ezkontzaren ateetan
nerbixuak barriketan
Konsu eta Bittor baietz lasaitu
altaretik bueltan.
Sukaldeko kontuetan
finak direnez benetan
zenbat zorion egosiko dan
lapiko horretan!*

ARAMAIOK ERRETIRATUAK OMENDU

Erretiratuen eguna ospatu zuten asteburuan Aramaion. Mezatik irtetea, harrera dotorea egin zieten dantzariak elizaren eskailera barrenean. Omenduak gustura, neska pinpirin hauek dantzan zelan egiten zuten begira.



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

GORKA
ILEAPAINDEGIA
LUZAPENAK

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

Solidarioa eta bidezkoa

Eroski hipermerkatuan sartuta, eskumako aldeko txoan jaki eta eskulanen denda xume bat dago. Begiak gura barik joaten zaizkizu dendarantz, kolore bizi eta produktu bitxiak baitaude bertan.

“Harreman” izeneko denda da hauxe, eta dendan sartzearekin batera ezezaguna zaigun munduan sartzen gara. Bidezko Merkataritza bideratzen duen denda da. Baina, zer da Bidezko Merkataritza?

Erantzuna, honakoa: bidezkoa eta solidarioa den merkataritza. Bidezko Merkataritza, Hirugarren Munduko hainbat herrialderekin harreman ekonomiko berria ezartzeko ahalegina da. Horrela definitu digute Beinat Artzadunek eta Jaione Ugartek.

Beinat Arrasateko Harreman taldeko kidea da eta Jaione, berriz, Oñatikoa. Biek egiten dute lan Eroski barruan dagoen denda horretan. Borondatez jarduten dute eta gogo onez egiten dute, gainera.

Hirugarren Munduko herrialdeetan kalitatezko produktu asko egiten da, baina askotan ez dira guregana iristen merkataritza sarea falta delako. Heltzen zaizkigun pro-

duktuen irabazien zati handiena bitartekariendako izaten da. Bidezko Merkataritza eskaintzen dituen produktuak erosiz, berdintasunean oinarritutako harreman ekonomikoa bultzatzen da, bitartekariak gabea alegia.

AITZINDARIAK

Bidezko Merkataritza 1964. urtean sortu zen, Nazio Batuen Garapenerako Lehen Konferentzian.

Bost urte geroago sortu zen lehenengo denda solidarioa, Holandan. Oinarrian bitartekari gabeko merkataritza harremana zegoen. Estatu Espainiarrean 1993an ezagutu genuen Bidezko Merkataritza. “Bidezko Merkataritza erosle kritiko eta jakitun bat



Bitzitza duina edukitzeko moduko soldata jasotzen dute Bidezko Merkataritzaren

hezi nahi du”, horrela esan digu Beinatek. Produktu bat oso merke topatzen dugunean, horren atzean giza baldintza tamalgarri bat egoten da gehienetan.

MISERIARIK EZ EGOTEA

Kasurik garbiena umeena izaten da. Herrialde behartsuetan, umeek lanera joan behar izaten dute, eskolara joan beharrean.

Mugimendu honek ikertu egiten ditu non eta zelan egiten diren produktuak. Baina, horrez gain, hautabide bat eskaini nahi du: “Gutariko bakoitzari erakutsi nahi diogu hemen posible dela kafea prezio justu batean erostea inor sufriarazi gabe. Jendeak ikusi behar du produktuak nola egiten diren, zein giza baldintzatan; jakin behar du badagoela egoera justua bultzatzen

duen mugimendua eta auke-ra egin dezakeela. Jendeak eskatu egin behar du ongi egindakoa nahiago duela eta ez inoren bizkarretik egindakoa. Horixe da filosofia guztia, hori bezain sinplea”.

Bidezko Merkataritzako prezioek ez dute zertan garestiago izan behar, kontua da baldintza onetan eginda egotea.

KAFEAREN ADIBIDEA

Bidezko Merkataritza ezagutzen duten nekazarien elkarrekin demokratikoak dira; denen artean hartzen dituzte adibideak; ez da inor inoren gainetik egongo.

Gainera, bitartekari gabek salten dituzte euren produktuak. Nekazariak urtean behin jasotzen dute uzta.

Urte hasieran mailegu bat eskatu behar izaten dute urtean zehar bizi ahal izateko eta



Nekazariak kooperatibetan antolatzen dira.

en merkatua



EUROPAN

- 3.000 denda baino gehiago dago.
- 45.000 salmenta-gune daude.
- Merkataritza mota honetan 100 erakundek dihardute lanean.
- 50.000 boluntario ari da laguntzen.
- Erosketa hegoaldeko 800 ekoizleei egiten zaie.
- Ondorio onuragarriak: hirugarren Munduko herrialdeetako 5 miloi pertsonentzako.

orduak, minimo bat finkatzen da, nekazaria bizi ahal izateko nahikoa izango dena. Boltsan kafearen prezioa hortik jaisten bada, prezioa bere horretan geratzen eta berdin ordaintzen zaie. Burtsak gora egiten badu, berriz, pixka bat gehiago ordaintzen zaie. Bidezko Merkataritzak beti ordaintzen die Burtsak esaten duena baino pixka bat gehiago.

HELBURUA

Nekazariak bizitzeko adina edukitzeaz gain inbertitzeko aukera izatea. Eskolak, anbulatorioak, tailer txikiak...

Euren buruaren kargu egiten ikasten dute: jestionatzen ikasten dute eta euren bizitza

urte bukaeran mailegua ordaindu behar izaten dute.

Maileguak, baina, ez dira %5 edo %7koak izaten, %30 edo gehiagokoak baizik. Bidezko Merkataritzak hori baztertu behar du. Urte hasieran erdia ordaintzen zaie, eta uzta jasotakoan beste erdia.

Prezioa finkatzerako



Merkatuko produktuek kalitate maila betetzen dute.

Azaroaren 11n Eroski aurrean produktuak dastatzeko aukera izango da. Kafea eta beste hainbat produktu izango dira nahi dutenek proba dezaten. "Harreman" denda ezagutaraztea da helburua.

Baina, zein da denda horren helburua?

■ Helburua:

Bailarako biztanleak sentikortu nahi ditu denda horrek: erosleak hezitu eta Bidezko Merkataritza sarea ezarri.

■ Bidezko Merkataritza bermatzeko bete beharreko baldintzak:

- Umeen lan esplotazioa gaitzestea.
- Langileek bizitza duina edukitzeko moduko soldata.
- Emakume eta gizonezkoen soldatak berdintzea
- Ingurumena aintzat hartzea.
- Bidezko Merkataritzak bideratzen dituen erakundeak demokratiko eta partehartzaileak izatea.
- Munduan dauden merkataritza-harreman desorekatuak salatzea eta bidezkoagoak bultzatzea.

antolatzen direla ikusten dute. Produzitzen dutenak izan behar duen kalitatea, nori saltzen dieten, zer baldintza bete behar dituzten... jakin egin behar dute, eta horretarako bileretara joan beharko dute.

Bizimodu duin bat izaten ikasten dute. "Bidezko Merkataritza ez da herrialde behartsuei emandako karitatesko zerbait, baizik eta beren buruaren kargu hartzen laguntzen zaie".

Debagoieneko Bidezko Merkataritza Denda "HARREMAN":

- Kokagunea: Arrasateko Hiper-Eroskiko merkataritza gunean

- Arduradunak: Debagoieneko Gobernu Kanpoko Erakundeak: Arrasateko Harreman, Aretxabaletako *Hiruatx*, Bergarako *FISC*, Oñatiko *Banoia*, Eskoriatzako *Atxorrotx* eta Antzuolako *ANELKAR*.

- Produktuak: Kafea, azukrea, txokolatea, palmitoak... Artisautza eta ehungintza ere topatuko ditugu bertan.

- Produktuen jatorria: India, Thailandia, Kenia, Bolivia, Mexiko, Peru, Ginea, Nepal... eta beste hainbat herrialdeetako produktuak elkarren ondoan.

- Betebeharrak: saltzen diren produktuek merkatuak eskatzen duen kalitate maila bete behar dute. Hori horrela izan dadin bi banatzaile dituzte, eta Bilboko MERCADECO da nagusia. Artisautza eta ehungintzari dagokionez, INTERMONEkin dute harreman estua. ■

Alazne Ostolaza

PEDRO GURIDI (EUSKAL PRESOA)

“Poza ematen zuen abertzaleen

Bihar, hogeiei urte beteko dira Pedro Guridi “Pedrotxo” espetxeratu zutela. 1980ko azaroaren 4an 23 urte zituen Pedrotxok. Gaur, ile urdin bat baino gehiago dauka eta 43 urte. Estatu espainiarreko hainbat espetxetan bizi behar izan eta gero, gaur egun Euskal Herrian dago, Langraitzeko espetxean.

Amnistiaren Aldeko Batzordeak omenaldi-salaketa eguna antolatu du “Pedrotxo”ren omenez. Guk, ordea, “Pedrotxo” bera gonbidatu dugu gure “aurrez aurre” tartera.

— Hogeiei urtetan hainbat espetxetatik igaro zara?

— Zazpi egun polizia etxean igaro ondoren, Carabanchelen sartu ninduten. Gero, Soria, Alcalá-Meco eta Herre-ran egon nintzen eta handik, sakabanaketa zela medio, Salto del Negron, Murtzian eta Granadan egon naiz. Orain dela bi urtetik, ordea, Langraitzen nago.

— “Barruan” lagun asko egingo zenituen. Norbait aipatuko zenuke, modu berezi batean.

— Etxe hauetan, eta urteak pasa ahala, kide mordoxka ezagutzeko aukera izan dut, baina bereiztuko nuke garai gogorretan eta beste garaietan egiten direnak. Une gogorretan egiten direnak beti izaten dira gogoratuenak, baina ezin dut bat aipatu; eta denak aipatzekotan, horrelako hamaika elkar-riketa beharko nituzke.

— Hogeiei urte kartzelan; 20 urte askatasunik gabe. Hogeiei urte familiarengandik eta zure herritik urrun. Zer botatzen duzu faltan?

— Zalantzarik gabe, “askatasuna”. Askatasunari buruz hitz egiten dudanean, zera ulertu behar da, ez dudala hitz egiten askatasun fisiko bati buruz, baizik eta edozein herritarri egungo bizitzak ematen dizkion aukerak ez izate-ari buruz.

(Nik maitatzen ditudan

senide eta lagunekin egunero ekintzetan ezin parte hartu izana).

— Horrenbeste denbora pasako zela pentsatzen zenuen?


— Ez. Nahiz eta espetxeratu izan nintzen sasoian egoera politikoari buruz nuen iritzia ezkorra izan, ez nuen uste denon artean eman behar genituen/ditugun aurrerapausoak ematea hainbeste denbora eta sufrimendu kostako litzazigukeenik.

— Bi hamarkada, erraz esaten da, baina espetxetik kanpo gauza mor-do bat pasatu dira. Zer

etortzen zaizu burura zuri, bat-batean?

— 20 urte hauetan gauza mordo bat gertatu da: Tejerazoak Sorian harrapatu ninduen eta une latzak bizi izan nituen. Ondoren, PSOEn garaipe-arekin, kristoren ilusioa sortu zen herrian, eta baita hemen barruan ere; GALen sorrera; Aljerreko elkarriketak; espetxeko sakabanatze politika (niri Salto del

Negro ezagutzea tokatu zitzaidan); makina bat borroka, gose eta egarri greba egitea; PPre-aren garaipea; Lizarra-Garaziren sorrera (eta ondoren sortu ziren hainbatekimen); su-etena; Udalbiltza; Batera...



“Ez dugu sinesten bat-bateko irtenbideetan.

Irtenbidearen sorrera abertzaleon
elkartasunaren bidetik etorriko da”

aleak elkarlanean ikustea”

— Euskal Herriaren egoera, batzundako aldatu egin da; beste batzundako egoerak bere horretan segitzen du. Zein iritzi daukazu?

— Ezin da ukatu esparru batzuetan aldaketa nabaria dela, baina beste esparru batzuetan ez da igarri aldaketa handirik. Azpimarratuko nuke borroka honetan parte hartzera bultzatu ninduten helburuak, hogeitau urte geroago, betetzeko daudela.

— Behin-behineko su-etena zela eta, bazirudien beste egoera bat bizi gurea

herrian. Nola bizi izan zenuen epealdi hori?

— Ilusio handiarekin, baina iparra galdu barik. Ilusioa eta poza ematen zuen abertzaleak elkarlanean ikustea, baina bagenekien egin beharreko bidea ez zela batera erraza izango. Jakinean geunden etsaia prozesua zapuzten saiatuko zela, eta zoritxarrez horrela jarraitzen dute.

— Zein litzateke, zuen ustez, Euskal Herriak bizi duen egoera aldatzeko bidea?

— Ez dugu sinesten bat-

bateko irtenbideetan, badakigulako Euskal Herriak bizi duen egoera aldatzea ez dela erraza; irtenbidearen sorrera abertzaleon elkartasunaren bidetik etorriko da, aitzakia merkeak alde batera utziz.

— Zer deritzozu senideek egiten duten lanari?

— Azpimarratu behar dugu borroka horretan parte hartzea gure erabakia izan zela. Senideei, aldiz, emanda datorkie eta eurei tokatu zaie borrokaren ondorioen zama handia eramatea lehenengo unetik (gure atzetik ibiltzea, istripuak bar-

ne, eta abar). Euren lana funtsezkoa da, eurek lortu baitute gure aldarrikapenak herriak barneratzea.

— Zerbait gehitu nahi duzu?

— Urte luze hauetan senide, lagun eta herriko erakundeek emandako laguntza guztia eskertu. Baita ere herriko preso, errefuxiatu eta deportatu guztiei besarkada bero bana bidaltzea eta gainontzeko guztioi gure herriak askatasunaren bidean eman behar dituen pausoak bultzatzera animatzea. ■

"Emakumea eta literatura"

- Hilero liburu baten kritika egingo da modu arin eta ulergarrian. Hitzaldi ostean elkarrizketa izango da.
- Hurrengo saioa: azaroaren 27an, astelehenean, arratsaldeko 18:00etan izango da.
- Liburua: "Eskeregiteko eguneko bisitaria", Truman Capote.
- Zuzendaria: Itziar Zubizarreta
- Izen ematea: Monterronen, azaroaren 10aren bitartean.

Anima zaitetz!

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA Emakume Salla ■

Laguntzailea:



Euskal Ligako Arrasateko Errugbi taldea

Ligako bigarren jardunaldia Irunen jokatu zuten Arrasateko Errugbi taldeko seniorek. Eta lehenengoan bezala, irabazi egin zuten. Aurkaria, iaz goi mailatik jeitsitako taldea zen eta hori dela eta, partida zaila aurreikusten zen. Eta badirudi horrela izan zela jokalariek esandakoaren arabera. Azkenean, baina, aurrelari mondragotarrak gogorragoak izan ziren eta puntuak ekarri zituzten. Azken emaitza: 10-19.

Joseba Maidaganek zuzentzen duen taldeak etxean jokatu du bihar. 16:00etan arituko da Garagartzan elorriotarren aurka. Josebak aurrelari gazte mailatik igo diren hiru jokalarirekin baditu taldean:

Mikel Kerejeta, Isei Barbero eta Igor Eraña.

Gazte mailari dagokionez, Arrasateko eta Eibarko taldekoek bat egin dute talde bakarra osatzeko. Joan den larunbatean Gernikan jokatu zuten eta justu, baina irabazi egin zuten: 20-21. Bihar Eibarren jokatu dute Durangoren aurka.



Joseba Maidagan
29 urte
zageroa/entrenatzailea




Egoitz Unamuno
21 urte
hegalekoa



JM Servide
26 urte
hegalekoa



Gari Heriz
21 urte
hegalekoa



Mikel Etxebeste
21 urte
erdilaria



Markel Elorza
19 urte
erdilaria




David Jauregi
31 urte
erdilaria



Haritz Arrieta
25 urte
zabaltzailea



Zunbeltz Arana
22 urte
mele erdia




Jon Aldamiz
28 urte
3. lerroa



Iban Okina
25 urte
2. lerrokoa



Iban Zabaleta
23 urte
2. lerroa



Iñigo Olasolo
29 urte
2. lerroko



Jon Balzategi
21 urte
horporatzailea



Iñigo Ansuategi
32 urte
pilierra



Iban Agirreurreta
28 urte
aurrelaria



Iker Saizar
22 urte
pilierra



Ikel Agirreurreta
24 urte
pilierra



Jon Sanabria
19 urte
pilierra



Haritz Gorroño
23 urte
aurrelaria

GIDA 2001

Badator, badator.


Gida 2001 prestatzen ari gara.
Idoia eta Miriam gaituzue.

Laster zure taberna, denda edo lantegira joango gara.

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza
eta **Leintz-Gatzagako** merkatarien
telefono eta helbideak jasoko
ditugu **GIDA 2001**ean.

ARKOren gidan azaldu edo
berri gehiago jaso nahi
baduzu, deitu **ARKO**ra
[943 71 23 91].

Gida
2001,
zure
etorkizunean.



Arrasate Komunikabideak

Eugi eta Capellan aurrez aurre, Uarkapen

Gaur bertan lau t'erdiko partida bikaina jokatu da Uarkapeko pilotalekuan. Euskal Herriko Txapelketako kanporaketa da eta iazko txapel-dun ordea, Patxi Eugi, eta Capellan errioxarra arituko dira nor baino nor. Joan den asteartean Arrasaten izan ziren biak pilotak aukeratzen eta 104 eta 105 gramoko pilotak hartu zituzten. Eugi da faborittoa, baina Capellanez aitortu ziguenez, "Eugi teknikoa izan arren, ni neu naiz beraren aurka irabazteko neure buruarengan konfidantza daukadan bakarra eta horretaz baliatu naiz Eugiri irabazteko".

Aspe enpresak eskuz bana-katu beste neurketa bat ere antolatu du gaurko. Bigarren horre-



Migel Capellan eta Patxi Eugi joan den asteartean Uarkapen.

tan Jokin Etxaniz eta Titin III.a arituko dira.

Partidak 22:30ean jokatu-ko dira eta sarrerak 21:30ean jarriko dira salgai 3.000 peze-tan.

LAU PARTIDA GEHIAGO

Berritze lanak egin direnetik, gaur izango da jokatzeko den lehen mailako aurreneko partida, baina Arrasateko Udalak beste lau partida lotu ditu

Asegarce enpresarekin. Azaroaren 25ean izango da lehenengoa: hau ere lau t'erdiko txapelketako partida, Unanuek jokatzeko duen taldekoa.

Beste hiru norgehiagokak datorren urtean jokatzeko sinatu dituzte: eskuz binakako eta lau t'erdiko txapelketako partida bana eta San Joanetako partida berezia.

Aspe enpresarekin, bestalde, urte bukaera arte dauzka hitzartuta partidak Arrasateko Udalak. Horieta bat Santamas bezperan jokatu da. Bestea, berriz, Euskaldunon Egunkariaren hamargarren urteurrena ospatzeko antolatu dute abenduaren lehenean.

Elkartasunezko aerobitoia

Lirain Gimnasioak, "Merezi duten aukerak" lelopean, elkartasun-aerobitoia antolatu du zapaturako. Helburua da Arrasateko Mugarik Gabeko Ingeniariak GKEri laguntza eskaintzea, kasu honetan aerobic-a egiten. Nikaraguako Diriamba hiriko gazteei zuzendutako proiektuan laguntzen ari da GKE hori. Kontua da, han baliabiderik ez duten gazteei ikasten segi dezaten laguntza eskaintzea.

Aerobitoian batzen den dirua "Diriankem-Ertamerika Alkartasun Elkarteak" GKEk kudeatuko du Arrasateko Mugarik Gabeko Ingeniari-tzak taldearen laguntzarekin. Iturripeko kiroldegian izango da larunbatean, 17:30etik 19:30era.

Aerobic egiteko aukerarik ez duenak, dena dela, laguntzeko modua ere izango du. Horretarako "0 zenbakia" formula aukeratu dute antola-



Larunbatean 17:30etik 19:30era izango da aerobitoia, Iturripen.

tzaileek, hau da, zenbakia erosi aerobic-a egin barik.

Sei monitorea zuzenduko dute aerobitoia. Beroketa ari-kerak egiten, Lirain gimnasioko bi begirale arituko dira. Ondoren, Aretxabaletako Kirol-Etxeko begiralea, Liraineko begirale bi, Arrasateko Kiroldegiko beste bat eta Gasteizko gimnasio bateko beste batek emango dituzte eskolak.

38 talde arituko dira Zaldibarren

Azaroaren 11n hasiko da aurtengo Zaldibarko txapelketak. Aurten 38 taldek parte hartuko dute eta bi multzotan banatu dituzte Zaldibarko antolakuntzakoek.

Iaz baino sei talde gutxiagok jokatu dute txapelketa, baina iazko txapel-dunek ere parte hartuko dute. Ez, ordea, Aldibik. Txapel-dun

orde gelditu ziren iaz eta aurten ez dute jokatu; erretiratu egin dira. Zahartzarora ote?

Beste hainbat talde berrik ere eman du izena, eta beterrano batzuek izena aldatu egin dute.

Berrien artean Aramaio-ko talde bat arituko da: Rayo Aldeano.



Ezohiko proposamena Psycosis Gonsalesen eskutik

Con cierto desconcierto ikusten joatera erabakita, ohiko antzezlan serio bat espero baduzue, ezustekoa izango duzue, Psycosis Gonsales/Norberto Di Giorno artista eta drag queenak antzeztu baino askoz gehiago egiten baitu: kabareta, hitzaren esanahi peto-petotan, da artista ausart honek eskaintzen diguna. Eta, edozein kabaretetan moduan, publikoak alboratu ezinezko papera jokatu du. Miguel Molinak, saio honen zuzendariak, ohar hau botatzen digu: "Existitzen den antzerki genero biziena da kabareta. Ikustera zoazena, desinhibizio, inprobisazio eta publikoarekin harreman ariketa neurtu bat da".



Domekan, 19:30ean Amaian, kabareta eskainiko du Psycosisek.

PIANOA ETA IRUDIMENA

Pianoa eta bere irudimena lagun dituela, bere mundu pertsonala erakusten du Psycosisek kabaret saio honetan. Abestu egingo du, baita ikusleren batekin ere. Probokazioa eta samurtasuna dituzutabe ikuskizun honek,

kabaret on guztiek hala behar dute-eta.

Estreinatuzenetik, joan den abendutik, oso kritikak jaso ditu Psycosis Gonsalesek *Con Cierta Desconcierto*ekin: "Drama eta

pikardia nahasten ditu, eta giza alderdia, poesia eta emozioa uztartzen dituen baka-rrizketak biribiltzen ditu". Ausartuz gero, Amaia antzokian duzue hitzordua, domeka honetan, 19:30ean.

Hezkidetzabuletina

Aurten ere umeak aukera berdintasunean hezitzeko Hezkidetzabuletina programa jarriko dute abian Emakume Batzordeak eta Hezkuntza sailak, baina berrikuntza batekin: familiar-tekoie zuzendutako ekintza bat ere izango da; hezkidetzaren inguruko buletin edo berripapera jasoko dute ume parte hartzaileen gurasoek, hau da, Erguin eta Musakola Herri Eskoletako eta Institutuko ikasleen gurasoek. Buletin horretan neska-mutikoen aukera berdintasunak piztutako gaiak landuko dira, zenbaki bakoitzean bat. Urtariletik ekainera bitartean jasoko dira.

LANAK TRUKATU

Eta aukera berdintasunaz ari garenez, beste egitasmo bat ere antolatzen ari da Emakume Saila: gizon eta emakumeok era guztietako etxeko ardurak ikasteko tailerrak. Une hauetan, ikastaroetarako baliabideak ipintzen dituzten enpresa eta elkarteekin harremanetan dago udala. Abenduan hasiko da izen emate epea.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.
Azaroak 10: **Gallon Drunk**

Egun bakoitzerako **2** sarrera
zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren
egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Bidali gurera: Arrasate Press, Otolora 31



asteko filma



El bar Coyote

(Coyote Ugly). EEBB, 2000. Komedia.
Zuzendaria: David McNally. **Aktoreak:**
Piper Perabo, Maria Bello. **Kalifikazioa:**
13 urtetik aurrerakoendako.

HARIA

21 urteko Violetek ahots miragarria du eta munduaren gailurrera iristeko gogo biziak ditu. Gauzak horrela, New Yorkera joaten da. Baina, krudela da hiri handia, eta bere usteetatik oso urruti dagoen lanpostu bat hartu beharrean da, Coyote Ugly izeneko tabernan, zerbitzari.

KRIKA

Ugari dira antzezleen erakargarritasun fisikoa argumentu bakar duten filmak. Baina, neska panpoxak pantailan erakustea ez litzateke argumentu maxkal baino maxkalago baten aitzakia izan beharko. Hari mehea, ia ikustezina; elkarrizketa barregarriak, zentzu arrastorik bariakoak; eta, hori gutxi balitz, emakumeak lorontzi edo objektu bezala tratatzen eta maneiatzen dituen hari bat.

irakurle eta entzule

Iturria: Hire

diskoak

FERMIN MUGURUZA
FM 99.00 Dub Manifest (Esan Ozenki)



Erreportajeak edo iritzi artikulua balira bezala idazten eta abesten ditu Fermin Muguruzak bere abestiak.

Aiztoen zorbatza bezain distiratsu eta zorrotzak dira doinu eta hitzen osotasunak, biribilagoak batzuetan bestetan baino, deigarriak beti. Erreferentzia eta izen mordoak darabiltza hemen Ferminen, horien artean diskoa egiten lagundu dioten adiskideenak, lehen mailan: raperoak, txalapartariak, *Bap!*, *Anari*, *Selektah Kolektiboa*, *Nacho Murgui*... baina, baita, nola ez, beti gogora ekartzen dizkigun historia latzenak: Euskal Herritik Latindar Amerikara joaten da, globalizazioaren aurrean leku txikien duintasuna aldarrikatuz, eta ideiak merkataritzarako artikulua bihurtu dituztenen lepora iseka eginez. Eta, bateren bat nabarmentzekotan, "Ekhi eder" ederra, Zuberoaren larritasunei eskainitakoa.

liburuak

HABANERAS, DIEZ NARRADORAS CUBANAS



Hainbat idazle (Txalaparta) 118 or.

Latinoamerikako literaturaren ekarpen handienetariko bat izan da errealismo magikoa; eta gaur egun, errealismoaren eta fantasiaren arteko ezkontzak emaitza bikainak ematen jarraitzen du. Bilduma honetako ipuin gehienek horren testigantza jasotzen dute. Umore bitxi batek modulatu eta ezitzen du larregizko errealismoak suerta zitzakeen dramatismo gehiegikeriak. Absurdoa, satira eta zentzugabekeria alde batetik, eta umorea, ironia suabea eta samurtasuna bestetik; horra hor zerekin estaltzen duten idazle hauek errealitatearen gogortasun hori. Oso laburrak dira ipuinok, hiru orrialdekoak batzuk, baina pertsonaien izatea zehatz-mehatz bistaratzen zaigu, eta horixe da kontakizunon aurkikunde nagusia. Aipamen berezia merezi dute *Rosa Ileana Boudeten* "Postales a la Maga eta Aida Bahren Olor a Limón" ipuinek.

asteburuan zer

kontzertuak

1995ean jaio zen metal estiloko talde bitxienetariko bat. Finlandian sortu zuen *Ville Hermanni Valok*, eta metal kulturaren testigu den izen bat ipini zion: "His Infernal Majesty" ren akronimoa, *HIM* alegia. *Depeche Mode* edo *U2 Black Sabbath*ekin edo *Iggy Pop*ekin nahasten direnean ematen den estiloa da *HIM*ek lantzen duena, "love metal" delakoa. Maitasuna eta metalaren arteko ezkontza bide-ragaitza zela uste zenuten, ala?

Bada, iritzi berekoak ei ziren orain 5 urteko musikazale eta adituak, eta horrexek ekarri zion *HIM*-i "kultuzko

talde" etiketa. Baina, gutxi batzuek izate hori gaintu egin zuten finlandiarrek, euren jaioterrian eta Alemanian zerrendetako lehen postura iritsi zirenean "Razorblade romance" diskoarekin. Arrakasta horren itzalean berrargitaratu dute Europa erdialde eta iparraldean "Greatest Love Songs vol. 666" estreinaldi lana.

Adituek esaten dutenez, edozein pertsona erabat hunkitzeko abestiz josita dago "Razorblade Romance". Gitarra erakusketak diren kantuetatik, edertasun malenkoniatsu suabez harrapatzen gaituztenez taraino; gainera, *Chris Isaaken* "Wicked Game" ren bertsio bat ere badago; dene-tarik egiten dute *HIM*eko lagunek.

*itsasi hemen
zure kupoiak*

Microsoft® Office® 2000



Mundua ulertzeko, euskaldunon Egunkaria

1. KUPOIA • ASTEARTEA

- ▶ Irakurterraza
- ▶ Word, Excel, PowerPoint eta Outlook programen azalpenak.
- ▶ Argibideak urratsez urrats
- ▶ Ikono eta irudi argigarriak
- ▶ 370 orrialde

2. KUPOIA • ASTEAZKENA

*Azaroaren 7tik aurrera,
Egunkariarekin batera!*

3. KUPOIA • OSTEGUNA

4. KUPOIA • OSTIRALA

**Nola jaso dezaket
OFFICE 2000 gida
liburua?**

1- Azaroaren 5eko Euskaldunon Egunkariarekin kupoiak itsasteko plantila banatuko da. 12 kupoi izango dira guztira, egunero jasoko dituzunak Egunkariarekin, azaroaren 19 bitartean.

5. KUPOIA • LARUNBATA

6. KUPOIA • IGANDEA

*Gida
liburua
doan!*

7. KUPOIA • ASTEARTEA

2- Kupoiz beteriko plantila kioskoan aurkeztuta, OFFICE 2000 gida liburua jaso ahal izango duzu azaroaren 19tik aurrera.

3- Kupoiren baten faltan geldituz gero, azaroaren 21ean eta 22an ordezeko kupoiak banatuko ditugu. Edozein kupoi ordezkatzeko erabil ditzakezu ordezekoak.

8. KUPOIA • ASTEAZKENA

10. KUPOIA • OSTIRALA

OHARRA: liburua eskuratu ahal izateko, banaketa arazorik ez edukitzearen, 200 pezeta ordaindu beharko da.

HARPIDEDUN
guztiekin etxean jasoko
dute liburua **DOAN**,
kupoirik bildu gabe.

11. KUPOIA • LARUNBATA







DATU PERTSONALAK

Izen abizenak: Adina: Tñoa:
Helbidea: Herria: P.k.: Herrialdea:

LAGUNTZAILEAK:

EGILEAK:



Goitb

Goiena Telebista

OSTIRALA, 3

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:40 Gatza eta Berakatza.
- 13:55 Hamaika Magazin (errepika.)
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Astebete.
- 22:00 Soinuz blai.
- 22:30 Gatza eta Berakatza.

LARUNBATA, 4

- 13:30 Asteko saioen errepika: Gatza eta Berakatza, Mahaiaren Bueltan, Hamaika Magazin, Soinuz Blai, Astebete.

IGANDEA, 5

- 13:30 Asteko saioen errepika: Gatza eta Berakatza, Mahaiaren Bueltan, Hamaika Magazin, Soinuz Blai, Astebete.

ASTELEHENA, 6

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:40 Gatza eta Berakatza.
- 13:55 Astebete.
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Goienasport. Debagoienan kirolen inguruan gertatutako guztia jasotzen du Gorka Etxabek kirol saio honetan.
- 22:00 Gatza eta Berakatza.

ASTEARTEA, 7

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:40 Gatza eta Berakatza.
- 13:55 Goienasport (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Xeleberri. Ikaragarriak dira munduan zehar gertatzen diren berri xeble guztiak. Unai eta Iratxek horien berri emango digute.



Xeleberriak.

- 22:00 Gatza eta Berakatza.

ASTEAZKENA, 8

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:40 Gatza eta Berakatza.
- 13:55 Xeleberri (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Aurrez aurre. Antzuolaren txanda da. Oraingo honetan Imanol Larrea eta Edurne Galartza, andereño ohia, solasean arituko dira Antzuolako aspaldiko kontuen inguruan.



Imanol Larrea eta Edurne Galartza.

- 22:00 Gatza eta Berakatza.

Gatza eta Berakatza

Aste honetan ere Iñazio Beldarrainek Bergarako Azpeitxi jatetxeko sukaldariak prestatuko dizkigu plater goxo goxoak. Gomendio bat: Etzazue galdu!

NOIZ

- Astelehena 6
- Asteartea 7
- Asteazkena 8
- Osteguna 9
- Ostirala 10

PLATERA

- Itsas zapoa amerikar erara.
- Bakailaoa saltsa berdean.
- Biribilkia jardinerara erara.
- Oihan tarta.
- Gatza tarta.

OSTEGUNA, 9

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:40 Gatza eta Berakatza.
- 13:55 Aurrez Aurre.
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Hamaika Magazin. Sexualitatea, Yoga, argazkigintza... eta gainera argazki kamara zoragarri bat irabazteko aukera. Deitu 943 71 23 93 telefonora eta utzi zure datuak.

- 22:00 Soinuz Blai. Miren Gonzalezek aurkeztuta, musika bideo klipak eta kontzertuen agenda.



Miren Gonzalez.

- 22:30 Gatza eta Berakatza.



Amagoia Lasagabaster.



Iñazio Beldarrain.

MA GAZIN

Ez galdu aukera!!

Momentu berezienak behin eta berriz bizitzeko

har ezazu parte IKATZ lehiaketan!

www.ikatzen.es

Hamaika gai aztergai

Hamaika Magazin osteguna, 21:30

Sexualitatea, osasuna, lorezaintza... Maki-na bat gai biltzen ditu Amagoia Lasaga-basterrek aurkeztutako *Hamaika Maga-zin* saioak.

Aste honetako atalean, Fernando Cris-tobal ginekologoak nerabezeroaren ingu-ruko kezka eta arazoak izango ditu hizpi-de. Lehenengoko hilerokoak sortzen dituen ardurak argituko dizkigu Fernandok. Ez da, ordea, gai bakarrik izango, nerabeen beste hainbat kezka izango dute-eta eran-tzuna ginekologiari eskainitako atal horretan. Adin horretan zaudetenok adi beraz, Fernandoren aholkuak baliagarri suerta-tuko zaizkue!

Ohi bezala, sexuaz ere hitz egingo da datorren asteko saioan. Antisorgailuen gaia aztertuko da *Hamaika Magazinen*. Noiz eta nola erabili, zeintzuk diren ego-kienak, zeintzuk erabilgarrienak... Sexua-ri eskainitako atalean gaur-gaurko gai interesgarria aztergai, beraz.

Aisialdirako ere izango da aukerarik datorren asteko saioan. Lorezaintzari eskai-nitako atalak "Azalea" landarea izango du mintzagai. Zein ezaugarri dituen, nola ego-kitzen den giro ezberdinetara... Azalea-ren inguruko gomendioz beteta dator oraingoan saioa.

Yoga izango da gaietan beste bat. Oste-



gunero bezala, eta Jose Luis Armentia-aren eskutik, egungo bizimodu azkar eta zoroari lasaiago aurre egiteko hainbat teknika izan-go ditugu ikusgai atal horretan.

Eta, beti bezala, lehiaketaren txanda ere etorriko da. Badakizue, *Hamaika Maga-zinen* eta *Ikatz* argazkidendaren eskutik, hamar mila pezetan baloratutako saria izango duzue-la eskuragarri. Ez da hori sari makala gero! Hamar mila pezetan baloratutako errebelatua!

Hainbat gairi buruzko informazio zeha-tza, aisialdiaz bete-betean gozatzeko gomen-dioak... Hamaika gai *Hamaika Magazinen* beraz.

Ostegunero, hemen, GOITBn, 21:30ean.

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.
09:55 Eguneko hitzorduak.
10:00 Igo autobusera I.
11:00 Albistegia.
11:15 Igo autobusera II.
12:30 Agenda, eskelak...
12:45 Albistegi nagusia.
14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

20:00 Jokoz Kanpo.
21:00 Draxtor.
22:00 In Session.

ASTEARTEAN

20:00 Hi bizi hadi.
21:00 Jakidiplost.

ASTEAZKENEAN

20:00 Binilo ordua.
21:00 KK2A.

OSTEGUNEAN

20:00 Ostegun-Ero.
21:00 Arakutzen.

OSTIRALEAN

20:00 Planing Prest.
21:00 Kale Doinuak.

LARUNBATEAN

10:00 Bihurrikerietan.
11:00 Musika klasikoa.
12:00 Bi zoro eta zu.

Batasuna Batzarra Arrasaten

Azaroak 11 larunbata
Goizeko 10etan Monterronen

Ponentzien aurkezpena:

- Piztu Euskal Herria
- Igitaia eta mailua
 - Aralar
- Bateginez
 - Arragoa

euskalherrikoezkertiarren

batasuna

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai Erguin auzoan, 70 m², berritua eta berogailuarekin. Tel.: 943 77 12 77.

• 160 m²ko etxebizitza salgai Aretxabaletan. Sukaldea prest, 2 komun, 6 logela, jangela-egongela, terraza eta balkoia. Tel.: 943 79 78 04.

• Etxebizitza salgai Santa Marinan. 4 logela, sukalde-jangela, komuna, trastelekua, berogailu indibiduala. Altzari eta guzti. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 98 14. Juan, 21:00etatik aurrera.

• Etxebizitza salgai Ferixalekuan. 3 logela, komuna, sukaldea (altzariekin eta beste), egongela eta gas berogailu indibiduala. Tel.: 943 77 19 48.

• Aretxabaletan 90 m²ko etxebizitza salgai: 3 gela, bainugela, saloia eta trastelekua. Altzariak ere badauzka. Tel.: 659 45 05 79.

• Etxebizitza salgai Aretxabaletan. Tel.: 649 93 07 32.

• Etxebizitza salgai Aramaion, kalean bertan: 70 m². Salneurri interesgarria. Tel.: 655 74 59 26. Iban.

2. Erosi

• Etxebizitza zahar bat erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 649 86 73 05.

3. Errentan emateko

• Bergaran, etxeko logelak aloka tzen ditut. Sukaldea erabiltzeko aukera. 40.000-50.000 pezeta hileko. Tel.: 943 76 15 40.

4. Errentan hartzeko

• Pisua behar dugu Aramaio, Aretxabaleta edo Eskoriatza inguruan. Tel.: 629 92 48 82.

• Bikote batek etxebizitza alokatuko luke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 606 75 59 13 edo 653 72 28 94.

• Etxebizitza bila nabil Arrasaten, konpartitzeko. Presakoa. Tel.: 945 27 80 59.

• Etxebizitza edo gela bila gabiltzan 2 ikasle gara. Tel.: 943 74 13 93 eta 943 67 26 45.

• Arrasaten etxebizitza alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 81 29 14. Ander (iluntzean deitu).

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

5. Etxeak osatzeko

• Neska bat behar da Donostian, Amaran, ikasleen pisu bat osatzeko. Tel.: 943 47 32 67.

• Lagun bat behar dut Arrasaten pisua osatzeko. Tel.: 943 77 13 20 (gauez).

• Pertsona bat behar da etxebizitza konpartitzeko San Juan auzoan, presazkoa da. 21.700 + gastuak. Tel.: 943 79 23 96.

• Etxebizitza alokatuko nuke beste ikasle batzuekin. Tel.: 943 80 64 05.

GARAJEAK

7. Saldu

• Arimazubi plazan garaje itxia saltzen dut. Tel.: 943 79 18 13.

9. Errentan emateko

• Garajea alokagai edo salgai Kontzeiñon, 18,9 m²koa. Tel.: 943 79 96 17. 13:00 - 15:00 eta 21:00 - 22:00.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Lokala salgai Zarugalde kaleko 6. zenbakian. 60m² eta 22m²ko patioa. Tel.: 606 76 50 22.

14. Errentan emateko

• Lokala alokagai Erdiko kalean. 65 m², prezio interesgarria. Tel.: 943 77 00 68. Orduategi komertziala.

15. Errentan hartzeko

• Lasai ikasteko lokal baten bila gabiltza. Tel.: 943 79 63 60. Denis.

LANA

17. Eskaintza

• Taberna batean egingo nuke lan asteburuetan. Tel.: 77 02 17 edo 617 72 47 83.

• 35 urteko emakumea prest ume-
ren bat arratsalde zaintzeko. Tel.: 667 85 15 10.

• Neska prest haurrak zaintzeko arratsaldetan. Deitu 943 71 58 74 telefonoa.

• Mutila prest taberna batean lan egiteko asteburuetan. Tel.: 943 79 17 15.

• Neska eta mutila prest edozein lanetan aritzeko. Tel.: 600 600 531.

18. Eskaerak

• Sukaldari bat, garbitzaile bat eta zerbitzariak, barrarako eta jangelarako behar ditu Bergarako jatetxe batek, gizon zein emakumeak. Tel.: 666 06 22 60.

• Neska euskalduna behar da dena batean arratsaldez lan egiteko. Datuak helbide honetara bidali: 259 P.-Ku. Arrasate.

• Tabernaria behar da. Tel.: 943 79 83 98 edo 943 77 17 97. Arantxa.

• Tabernaria behar da Bergarako-kafetegi batean. Kontratuarekin. Tel.: 943 76 59 28.

• Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko, goizez. Tel.: 653 71 77 97.

• Tabernan lan egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

• Oso martxa onean doan fruta dena jabez aldatzen da. Tel.: 943 77 01 79.

• Taberna baterako sukaldari lanak egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

• Taberna baterako pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

• Neska edo emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 52 40. 19:30etik aurrera.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• LH edo DBHko eskola partikularrak ematen ditut. Matematikak, fisika, euskara eta abar. Euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 943 71 46 28.

• Lizentziaduna, EGArekin, idazketa, irakurketa, euskara errefortzua eta LHko laguntza eskolak ematen ditu. Tel.: 649 22 51 07.

• Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak ematen dira, eta baita ikasketarako teknikak ere bai. Tel.: 630 70 81 43.

21. Eskaerak

- DBHko lehen mailako eskola partikularrak emango dituen pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 83 15. 21:00etatik aurrera.

- Gestio informatikan ingeniariatza teknikoko algoritmikorako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 76 61 02.

- Ingeniaritza Teknikoko 1. mailako marrazki ikasgaiarako eskola partikularrak behar dira. Tel.: 943 79 37 96.

- Euskarazko eskolak behar ditut. Tel.: 943 79 09 69. 12:00 - 14:00. Amaia.

MOTORRA

23. Saldu

- Honda CB-500 motorra salgai. 96ko ekainekoa. 34 zaldiko potentziara mugatua dago. Puntu estrak. Tel.: 678 08 43 67.

- Kawasaki K LX 300, 2 urtekoa salgai. Matrikula: SS-BB. Prezioa: 650.000 pezeta. Tel.: 626 00 54 33.

- Renault 21 TXE autoa salgai.

175.000 pta. Egoera onean. Tel.: 667 63 93 85.

- Trialerako motorra salgai, 250 cc, 125.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

- Auto bat salduko nuke. Niba Lada 1.600 VI-O. Tel.: 943 71 50 43. Gauzez deitu.

- Opel Astra AX salgai; 1.600eko potentzia. Egoera onean, 4 urtekoa, merkea. Tel.: 617 60 84 45.

- Autoa salgai. SS - S. Oso merke. Tel.: 943 79 90 24.

DENETARIK

26. Saldu

- 5 gurpil saltzen dira aluminiozko lantekin, Opel Corsa edo Opel Kadettentzat. 20.000 pta. Tel.: 943 79 93 19.

- Ordenadorea salgai, 1997. urtekoa. Ezaugarriak: Pentium 133, inprimagailua eta bozgorailuak. Egoera onean. 95.000 pta. Tel.: 676 73 40 77.

- Erabili barik dauden eskiatzeko botak salgai; zenbakia: 40. Tel.: 943 77 17 48. Gauzez deitu.

- Piragua salgai, arraun eta ontzi

estalkia, merkea, ia berria. Tel.: 943 79 78 36. Unai.

- GAC markako 2 bizikleta salgai, berriak, behin erabiliak, gizon eta emakumearendako. 40.000 pezeta (biak). Giltzarrapoa doan. Tel.: 943 79 65 80. 19:00 - 21:00.

- Yors-Shire txakurkumeak salgai. Tel.: 943 76 18 96.

- 90 zm.ko bi koltxoi salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 79 14.

27. Erosi

- Txanpon zaharrak erosiko nituzke. Tel.: 639 82 27 90. Pello.

- Trial Sineko Monti bizikleta erosiko nuke. Tel.: 656 74 06 48.

28. Trukatu

- Egoera onean dagoen Seat Panda motorbatekin trukatu nahiko nuke. Tel.: 677 42 58 30.

29. Eman

- Hil eta erdiko txakurkumeak opari-

tzen dira. Tel.: 676 37 96 36.

30. Hartu

- Telebista zahar bat hartu edo erosteko prest. Tel.: 943 77 91 25. Jon.

31. Galdu

- Irailaren 20an, eguaztena, Erguingo Udalpe plazako eskaileretan betaurrekoak galdu nituen. Brico markakoak, berdeak. Tel.: 943 77 01 42.

- Urriaren 8an, igandean, Etxague-neko bolatoki ondoan argazki kamera eta prismatiko batzuk galdu zitzaizkigun. Aurkitu dituenak mesedez 943 79 95 50 edota 943 79 19 03 telefonora dei dezala. Eskertuko da.

HARREMANAK

37. Bestelakoak

- Berreskuratu zure osasuna energia erabiliz. Gaixotasun mota guztiak, norberarentzako tratamenduekin. Deitu inolako konpromisorik gabe. Tel.: 943 79 45 74.

RIP CURL **Yin & Yang** **AIRWALK** **libero** **VANS** Since 1966

Loramendi

kirolak

www.loramendikirolak.com

SALOMON freedom action sports **trang** **Columbia** Sportswear Company®

H.Waves **LOREAK MENDIAN** **KYONGO BONGGO**



Cerrajerako erai-
kinen artean,
zutik dirauen
bakarra Apren-
dizen Eskola da;
hain zuzen ere, eraikin horre-
kin lotutako argazki bat ekarri
dugu aste honetan tarte horre-
tara.

1961. urtean ateratako
argazkia da eta Ofizialen hiru-
garren ikasturteko kurtsu
amaierari dagokio. Berez, 21

ikasle zeuden ikasturte hartan,
baina argazkian lau falta dira:
Luis Javier Arrieta, Txomin
Iturbe, Julian Llodio eta Anto-
nio Azkoaga. Itxura denez,
lehenengo hirurak hamaiketa-
koaz gozatzan argaz-
kia atera zenean. Laugarrena,
Antonio Azkoaga, aurreko urte-
an hil zen, Iturripen futbolea
jokatzen zebilela.

Ikasturte bukaerako jaiaren
ondoren, ikasbidaia egin zuten.

Valladoliden, Salamancan eta
Zamoran egon ziren urtegiak
eta zingirak ikusten. Madrile-
ra egindako bisita batekin ama-
tu zuten bidaia hori.

Goitik hasita, hauexek dira
argazkian agertzen direnak,
ezkerretik eskumara: Matias
Osinaga, Angel Astondoa,
Pedro Elortza, Jose Cruz Mur-
gia, Guillermo Ruiz de Ale-
gria, Jose Manuel Urrutxua,
Alberto Ziardegi, Pedro

Miguel Lizarralde, Jose Luis
Azkarate, Ivan Bolinaga eta
Jose Maria Ugalde.

Makurtuta daudenak hona-
koak dira: Juan Luis Kortar-
barria, Javier Urreta, Jose Luis
Uriarte, Adolfo Madinabei-
tia, Rafael Leturia eta Peitxo
Otañui.

Berriemailea:
Luis Azkarate



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Banatzen gaituzten beste gauza batzuk daude

KAJOI



Kajoi-Ostantz. Kalitatea, ostalaritza ulertzeko modu desberdina.



lehenengo ziberkafea musutruk

www.ostantz-arrasate.com

Ostantz • Ferrerías, 12




Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA



Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik